

## PERNANDO AMEZKETARRARI GORAZARREA BERE ERRIAN JAIOTZAREN BERREUNGARREN URTEA OSPATZEKO

1964 irailaren 6-an Amezketa Pernando-n omenez jaiak izan ziran. Meza nagusian Juan Maria Lekuona-k sermoia egin zuen. Basarri ta Uztapide bertsoan aritu ziran. Bazkari aundi bat egin zan kanpoan eta gero itzaldiak Antonio Arrue, Fernando Artola "Bordari" eta Aita Antonio Zavala-k Pernando-n nortasuna gogora ekarriaz.

Bezperan jaiotetxe aurrean jarritako arria agerian ipiñi zan.

### BERTSOLARIEN TXAPELKETAK

1964 urtean Euskaltzaindiak bertsolarien txapelketak eratu zituen erririk erri, 1965 urteko lendabiziko egunean bukatzeko Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketa nagusiarekin, Donostian, Anoeta-ko frontoian. Aipatu degun azken saioak izugarritzko oiartzuna izan zuen publiko bertsozalearen aurrean. Amar bertsolarik parte artu zuten bertan. Txapelduna Uztapide. Bigarrena Lazkao-txiki. Irugarrena Xalbador. Laugarrena Mitxelena. Bosgarrena Mattin. Seigarrena Lopategi. Eta beste laurak Mugartegi, Narbarte, Arozamena eta Garmendia.

Egin ziran txapelketak auek dira:

#### **Nafarroan:**

Beruete-n maiatzaren 3-an Andres Narbarte Goizueta-koa txapeldun.

Lesaka-n garagarrillaren 14-an Migel Arozamena Lesaka-koa txapeldun.

Iruñean irailaren 27-an Nafarroako azken txapelketa nagusia. Andres Narbarte txapeldun eta Migel Arozamena bigarren.

#### **Bizkaian:**

Urkiola-n garagarrillaren 13-an Julian Martitegi Mañari-koa txapeldun.

Mungia-n uztailaren 19-an Felix Ortuzar Muxika-koa txapeldun.

Markiña-n, Larruskain-en, uztailaren 31-an Abel Muniategi Ereño-koa txapeldun.

Igorre-n, abuztuaren 16-an, Basilio Pujana Zeanuri-koa txapeldun.

Gernika-n, abuztuaren 17-an, goizean, Bizkaiko txapelketa nagusiaren aurrekoa. Azkenerako gelditu ziran Juan Mugartegi, Jose Maria Arregi, Ireneo Aju-ria, Deunoro Sarduy, Basilio Pujana eta Abel Muniategi. Juan Mugartegi-k irabazi zuen Gernika-ko sari nagusia. Juan Lopategi eta Juan Azpillaga, Bizkaiko txapeldun eta bigarrena, azken saiora, aurrekoetan parte artu gabe, joateko eskubidearekin zeuden.

Ondarru-n, abuztuaren 17-an, arratsaldean, Bizkaiko azken txapelketa nagusia. Juan Lopategi txapeldun eta Juan Mugartegi bigarren.